

Puntu interesgarriak

Puntos de interés



Hernaniko ibilbide

Urdinak

8,4 km. 2 h.45min. 285 m.

Oindi mendiaren magaletan milaka urteetan zehar gizakiak bere arrastoak utzi ditu: trikuharriak, harrespilak, saroeak edota misterioz beteriko mugarriak... Hori dela eta, ibilbide honek Oindi mendiaren inguruan zabaltzen diren bailara eder eta basatiak ikusteko aukera ezezik, gure arbasoen bizimoduaren ispilu diren hainbat aztarna ikusteko aukera emango digu, baita Hernaniko baso mistorik handienaren barrualdea ezagutzeko parada ere.

A lo largo de miles de años el ser humano nos ha ido dejando vestigios de su presencia en las laderas del monte Oindi: dólmenes, cromlechs, túmulos, majadas, mojones llenos de misterio... Es por todo ello que, además de tener la oportunidad de disfrutar de valles salvajes y bellos de los alrededores del monte Oindi, este recorrido nos permitirá descubrir vestigios que muestran la forma de vida de nuestros antepasados. Además, como si ello fuera poco, nos adentraremos en el bosque mixto más extenso de Hernani.



Informazio praktikoa

Mendiko arropa arina eta mendiko botak eraman. Herrigunetik abiapunturaino oinez joan daiteke, kotxerik erabili gabe. Kasu horretan beste ordu eta erdi gehitu behar zaio ibilbideari.

Información práctica

Vestir botas y ropa de monte ligera. Si así se desea, se puede ir a pie desde el centro de Hernani hasta el punto de partida: en ese caso hay que añadir una hora y media más a la duración del recorrido.


- A** **Mugarriluze mugarría.** Hernani eta Urnietako udalerriak mugatzen dituen mugarri honek bitxitasun bezala bere tamaina du; izan ere, Hernaniko gainontzeko mugarriek ez bezala tamaina bereziki handia baitu.

Mojón de Mugarriluze. Es el tamaño del mismo lo que hace peculiar a éste mojón que marca la división entre Hernani y Urnieta, ya que, comparándolo con los otros mojones delimitadores del municipio, éste es especialmente grande.



- B** **Pozontarriko lepoko trikuharria.** Urnietako udalerriko lurretan kokaturiko dolmen hori kobre eta brontze aroetan gizakiak eraikitzen zituen ehorzteko hilobi kolektiboen eredu garbia da. Oindiren magalean duen kokapenak, Aballarriko harkaitz malkartsuak atzean dituelarik, gune ederra bilakatzen du Pozontarriko lepoa.

Dólmen del collado de Pozontarri. Éste dólmen, ubicado en terrenos de Urnieta, es un claro ejemplo de enterramiento colectivo levantado por los humanos de la Edad de bronce o de cobre. Su ubicación en la ladera del monte Oindi, y a la vista de las escarpadas rocas del Aballarri, convierten éste collado de Pozontarri en un bello lugar.



- D** **Muniskueko multzo megalitiko.** Hernani eta Urnietako udalerrien mugak 1956an aurkitu zen multzoa zeharkatzen du alderik alde. Bertan, trikuharria, mairubaratzea, 1,75 m-ko menhirra edo iruinarria bezalako aztarnak aurki daitezke. Hernaniko multzo megalitiko ederrenetariko bat osatzen dute.

Conjunto megalítico de Muniskue. El límite entre los municipios de Hernani y Urnieta atraviesa de lado a lado éste conjunto. Fue el año 1956 cuando en él se descubrieron, un dólmen, un cromlech y un menhir de 1,75 m., o lo que se asemeja a un monolito, formando todos ellos uno de los conjuntos megalíticos más bellos de Hernani.



- E** **Muniskueko mugarría.** Mugarriak Urumeako bailaran hain ohikoak diren saroeen erdialdeko harriak dira, saroearen zentroa adierazten dutenak. Saroe edo saroi bezala ere ezagunak ziren gune horien jatorria oraindik ere zalantzazkoa den arren, antzina, basogintza-gunearen baitan esparru "libre" garrantzitsu bat zirela uste da.

El mojón de Muniskue. Los "mugarriak" son unos mojones de piedra, muy utilizados en el valle del Urumea, que indican concretamente el centro del sel o recinto. El origen de éstos seles es todavía incierto. Sin embargo se piensa que, antiguamente, delimitaban un recinto "libre" dentro de un entorno de explotación del bosque.



- F** **Argurutzeko harkaitzak.** Misterioz beteriko gune honetan, harrian bertan forma ezberdineko gurutze bana markaturik duten lau harkaitz aurki daitezke. Hainbat hipotesi dauden arren, oraindik ere ezin izan da argitu gurutze hauek benetan gordetzen duten misterioa.

Rocas de Argurutzeko. En éste lugar lleno de misterio se pueden encontrar cuatro rocas en las que hay grabadas cruces de formas diferentes. A pesar de las hipótesis existentes, hasta la fecha ha sido imposible desvelar el verdadero misterio que nos pudieran ocultar.



- G** **Ereñotzuko basoa.** Hernaniko baso mistorik handienaren zuhaitzek Urumearen ibaiertzeraingoa dauden lur malkartsuak estaltzen dituzte. Gune batzuetan sasiarkazia bezalako zuhaitz inbaditzaileak ikus daitezken arren, basoaren handitasunak berak aipagarria egiten du Ereñotzuko basoa.

Bosque de Ereñotzu. Los árboles del bosque mixto más extenso de Hernani cubren las pendientes laderas que lindan con la orilla del río Urumea. A pesar de verse también en él ejemplares de especies invasoras, como la pseudo-acacia, consideramos que la gran dimensión de éste bosque de Ereñotzu lo hacen digno de especial mención.



Oharra:

Ibilbide honetako 9 eta 0 puntuen artean dagoen zatia HIU-2 ibilbidearen zatia ere bada. Beraz, arreta berezia jarri behar da aipatutako puntu horietan.

Advertencia:

El tramo entre los puntos 9 y 0 de éste recorrido es compartido con el recorrido HIU-2 en sentido inverso, por lo que deberemos prestar especial atención en ambos puntos.



Oharra: Ibilbide honetako 9 eta 0 puntuen artean dagoen zatia HIU-2 ibilbidearen zatia ere bada. Beraz, arreta berezia jarri beharko da aipaturako puntu horietan.

Advertencia: El tramo entre los puntos 9 y 0 de este recorrido es compartido con el recorrido HIU-2 en sentido inverso, por lo que deberemos prestar especial atención en ambos puntos.

Nondik hasi



Punto de partida



Nola iritsi

abiapuntura

Cómo llegar al punto de partida



- Bidea hemendik
- Norabide okerra
- Eskuinera jo
- Ezkerrera jo
- Bat-bateko aldaketa eskuinera
- Bat-bateko aldaketa ezkerreara

Donostia eta Andoain lotzen dituen GI-131 errepidetik goazela "Hernani-Goizueta" jartzen duen irteera hartuko dugu. Goizueta eramango gaituen bidea (GI-3410) alde batera utziaz Hernaniko erdigunera eramango gaituen bidea hartuko dugu. Berehala, biribilgune batetik, Urumea ibaia zeharkatzen duen zubi txiki bat igaroko dugu eta Karabel auzora iritsiko gara. Hor Portu auzorako bidea hartu behar dugu. Portutik Osinaga auzora joko dugu, bide estu batetik. Bidea jarraituko dugu Loidi baserrira iritsi arte. Hor aldapa gora goragor bat hartuko dugu eta bi kilometro eskasean Pardiolako baserriaren bidegurutzera iritsiko gara. Puntu horretan emango diogu hasiera gure ibilbideari.

Circulando por la GI-131 que une Donostia con Andoain, tomaremos la salida que indica "Hernani-Goizueta". Haciendo caso omiso a la carretera hacia Goizueta (GI-3410) nos dirigiremos hacia el centro de Hernani. En breve, desde una de las rotondas deberemos atravesar un pequeño puente sobre el río Urumea que nos situará en el barrio Karabel. Desde allí iremos al cercano barrio Portu. Seguiremos una estrecha carretera que nos llevará hasta el barrio Osinaga. Continuaremos llaneando hasta el caserío Loidi. Desde allí ascenderemos decididamente y en menos de 2 km llegaremos al cruce del caserío Pardiola, punto de partida del recorrido.

Ibilbidearen

deskribapen zehatza

Descripción del recorrido

Pardiola-txiki Pardiola-txiki

Ibilbideak Pardiola-txiki baserriaren parean du hasiera. Palmondo baten ondotik doan pista hartuko dugu, aldapa gora egiten ez duen bakarra. Hasi eta segituan pistak erreka bat zeharkatu du. Hortik 100 metrora bide-banaketa aurkituko dugu.

El recorrido se inicia en el cruce situado junto al caserío Pardiola-txiki. Ahí tomaremos la única pista que, sin ascender, discurre junto a unas palmeras. A pocos metros cruzaremos una pequeña regata y a unos 100 metros encontraremos la primera bifurcación.

0km
0h 0m
UTM 30T X=584774 Y=4788529
(European 1950)

Bide-banaketa Bifurcación

Aldapa gora, ezkeraldera egiten duen bidea hartuko dugu. 40 bat metrora beste bidegurutze bat dago. Hor eskuineko bidea hartuko dugu sagarrondo batzuen albotik. 5 minutura beste bidegurutze batera iritsiko gara, ezkeraldera doan bidea hartuko dugu aldapa gora. Bide hori jarraituta metalezko langa batekin egingo dugu topo. Hori zeharkatzean bideak sigi-saga moduko bat egingo du. Bigarren kurban, aldapa gora nabarmenagoa egiten denean, bide nagusia utziko dugu. Puntu horretan Hernani eta Urnieta banatzen dituen mugan gaude.

Tomaremos el camino que asciende por la izquierda. A unos 25 metros, en el próximo cruce, tomaremos el camino que por la derecha discurre junto a un manzanal. En 5 minutos, otro cruce: esta vez cogemos el camino que asciende por la izquierda. Siguiéndolo, en breve llegaremos hasta una puerta metálica. La atravesamos. El camino hace una especie de zigzag. En la segunda curva, cuando la cuesta arriba se hace ya muy evidente hacia la cima del Oindi, debemos abandonar el camino. Estamos junto a la alambrada que separa los municipios de Hernani y Urnieta.

Mugarriluze

Muga pasatzeko hesia gainetik zeharkatu dugu ondoan daukagun igarobidetik. Gertu, hesiaren aldamenean, landaredi artean ezkutaturik Mugarriluzeko mugarría ikus dezakegu. Ondoren, otez inguratutako bidezidorrak motza zeharkatu dugu pista zabalago batekin topo egin arte. Pistan, ezkeraldera, aldapa gora hartuko dugu. 10 bat minututan norabide bera jarraituko dugu (hegoaldera), beti ere aldapa pixkanaka igoaz eta ezkeraldetik datorren pistari kasurik egin gabe. Laster bidegurutze garbi batera iritsiko gara.

Buscaremos un paso cercano que nos permitirá pasar por encima de la alambrada. A nuestro lado, unos metros más abajo y semioculto entre la vegetación, podemos apreciar el mojón de Mugarriluze. El sendero atraviesa ahora un pequeño tramo cubierto de argoma, pero en breve nos llevará hasta una pista más ancha y ascendente. Una vez en la pista, tomaremos a la izquierda, subiendo. Desde aquí, y durante unos 10 minutos de marcha, seguiremos siempre la misma dirección (Sur) en suave y continuado ascenso y haciendo caso omiso a una pista que pronto se nos une por la izquierda. Llegaremos pronto a un cruce evidente.

Bidegurutzea Cruce

Bidegurutze horrekin topo egiten dugunean hegoaldera jarraituko dugu, eskuinaldera, aldapa behera doan pista hartuz. Metro gutxira aldapa gora egingo dugu berriro nabarmenki, eskuinaldera abiatzen den bidezidorrari kasurik egin gabe. Bide hori jarraituz gero, burnizko langa bat igaro ondoren, Pozontarriko lepora iritsiko gara.

En éste cruce seguiremos dirección Sur tomando para ello la pista que baja ligeramente por la derecha. En muy pocos metros reanudamos el ascenso decididamente, dejando de lado un camino que sale por nuestra derecha. Seguiremos siempre ascendiendo, atravesaremos una puerta metálica y llegaremos al collado.

Pozontarriko lepoa Collado de Pozontarri

Gune zoragarri horretan Pozontarriko trikuharria topatuko dugu. Gertu dagoen ataka zeharkatu ondoren, ezkeraldera, baso barnera sartzen den pista hartuko dugu. Horri jarraituz, galtzeko aukerarik gabe, pistan aurrera segituko dugu trikuharri eta menhirrekin topo egin arte.

En éste precioso paraje se sitúa el dólmen de Pozontarri. Continuando la dirección que llevábamos atravesaremos otra puerta metálica y tras ella cogemos la pista que, por la izquierda y en ligero ascenso, se adentra en un bosque. Siguiendo esta pista, sin posibilidad de pérdida, llegaremos hasta el paraje donde se sitúa el conjunto megalítico de Muniskue.

Muniskueko estazio megalitiko Estación megalítica de Muniskue

Aurretik generaman norabide bera jarraituz estazio megalitiko alde zeharkatu dugu, igarobide batetik sartuz eta parez pare aurkituko dugun pasotik irtida. Hor pinu artetik doan bidezidorra hartuko dugu aldapa behera, pista batekin topo egin arte. Pistan ezkerretara hartuko dugu basoaren irekigune batera iritsi arte. Bertan, seinalizatuta dagoen mugarría aurkituko dugu.

Llegados a éste punto seguiremos la dirección que traíamos. Para ello atravesaremos, de lado a lado, el conjunto megalítico cruzando primero la alambrada que lo protege y saldremos por el otro paso que encontraremos en frente, más abajo, entre los árboles. Desde aquí, entre pinos un estrecho sendero baja decididamente hasta una pista ancha. Tomaremos a la izquierda hasta llegar a un claro. Encontraremos un poste de señalización del mojón de Muniskue.

Muniskueko mugarría Mojón de Muniskue

Etorri garen pista bera jarraituz aurrera joko dugu harrizko borda bat, eta pixka bat aurrerago, iturrizko bat gure ezkeraldera utzirik. Zati luze batean pista aldapa gabea izango da, baina, ondoren aldapa behera goragor bat hasiko da pinu artean. Sigi-saga batzuen ondoren bidegurutze batera iritsiko gara.

Continuando por la pista, en breve dejaremos a nuestra izquierda una borda de piedra primero y una pequeña fuente más adelante. Durante un largo tramo la pista mantendrá su nivel, pero luego descenderá fuertemente dentro del pinar. Tras unos zigzag en descenso, llegaremos a un cruce evidente.

Argurutzeko bidegurutzea Cruce de Argurutze

Hor bidetik 30 bat metro irtenez gero, Argurutzeko harriak ikusteko aukera dugu. Ikusi ostean, berriro ere bidegurutzera itzuli beharko dugu bidearekin jarraitzeko. Bidegurutzean, jeitsi garen pista eskuinean utzita, aldapa gora egiten duen bide bakarra hartuko dugu. Pistak basoa zeharkatu ostean, argigune batera iritsiko gara. Pista horretan aldapa behera jarraitu, egurrezko langa zeharkatu eta begi bistan dugun Saratsain bordaren ateraino iritsiko gara.

Desde aquí, y saliéndonos de nuestro recorrido unos 30 metros, tenemos la oportunidad de ver las piedras de Argurutze. Tras visitarlas, debemos retornar de nuevo a éste cruce para continuar el recorrido. Una vez en el cruce, dejando a nuestra derecha la pista por la que hemos bajado, tomaremos la única pista que asciende brevemente. Esta pista atraviesa un bosque y nos lleva hasta un portillo de madera que atravesándolo nos llevará hasta la misma puerta de la borda de Saratsain.

Saratsaingo borda Borda de Saratsain

Borda eskuinetara utzirik eta aldapa behera leunean sagarrondoaren hesiaren norabidea jarraituko dugu hurrengo langarekin topo egin arte. Hortik aurrera, basoan sartuta berriro ere, Urumeako bailara eta Ereñotzu auzoa eskuinaldean utziko ditugu, beti ere pista nagusia jarraituz. 30 bat minutura asfaltozko bidearekin egingo dugu topo.

Dejando la borda a nuestra derecha y en ligero descenso, seguiremos la pista que discurre junto a la alambrada del manzanal. En breve encontraremos otro portillo. En adelante, adentrados de nuevo en un bosque, divisaremos a nuestra derecha el valle del río Urumea y el barrio Ereñotzu. Sin pérdida y siguiendo siempre la pista más evidente, en unos 30 minutos, llegaremos a un camino asfaltado en el collado de Lepatxiki.

Lepatxiki

Kontuan eduki behar dugu puntu honetan bi ibilbide elkartzen direla. Guk ezkerretara hartuko dugu, aldaparik gabeko asfaltozko bidetik. Minutu gutxitan egindako ibilbidearen abiapuntura iritsiko gara.

Deberemos tener en cuenta que en éste punto confluyen dos recorridos azules diferentes. Nosotros debemos tomar la pista asfaltada que sale a la izquierda y discurre sin pendiente. En pocos minutos nos conducirá hasta el punto de salida del recorrido.

8,4km
0h 45m
Pardiola txiki
UTM 30T X=584774 Y=4788529

8,0km
2h 40m
UTM 30T X=584935 Y=4788782

6,1km
2h 14m
UTM 30T X=586039 Y=4787630

5,1km
1h 53m
UTM 30T X=585306 Y=4788208

3,5km
1h 28m
UTM 30T X=585866 Y=4787026

3,2km
1h 17m
UTM 30T X=585652 Y=4786918

2,1km
1h 00m
UTM 30T X=584646 Y=4786901

0,3km
0h 4m
UTM 30T X=584771 Y=4788330

0,8km
0h 31m
UTM 30T X=584690 Y=4787960

1,4km
0h 45m
UTM 30T X=584685 Y=4787452